



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko apirilaren 1a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, Guatemalako fede oneko kontsultei eta haien aurkako lege proposamenari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, hipoteken lege-esparrua aldatzeari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzarako Asteari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Funesko lurzati berrantolamenduaren eta ureztalur tradizionalaren egungo egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (6. or.).

—Galdera, Yugoko ermitako eguzki-parkerako proiektuaren egungo egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (6. or.).

—Galdera, Erriberako ahuntz-azientetako abeltzainek eremu geografiko horretakoak ez diren gainerako abeltzainen prima berak ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (8. or.).

—Galdera, Tafallak eta Lizarrak Hizkuntza Eskolaren azpi-egoitzak izateko eginiko eskaera dela-eta hartutako jarrerari buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Comptos Ganberako 2011. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2010eko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda (9. or.).
- 2010eko abenduaren 20ko Mahaiaren erabakia aldatzea, zeinaren bidez 2011ko lan-egutegia onetsi baitzen (12. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Gaindituen zerrenda (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

**Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko
6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.**

AKATS ZUZENKETA

Akats bat aurkitu da 2011ko martxoaren 21eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Foru Legearen testuan. Beraz, zuzendu egin da, horretarako akats-zuzenketa argitaratuz.

– Zioen azalpenean, honakoa dioen tokian:

“.. foru lege proiektu bat igor dezan Nafarroako Parlamentura, non arautuko baitira Nafarroako *Foru* Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua”

Honakoa behar du:

“.. foru lege proiektu bat igor dezan Nafarroako Parlamentura, non arautuko baitira Nafarroako *Toki* Mapa eta Nafarroako toki entitateen antolamendua”

Iruñean, 2011ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, Guatemalako fede oneko kontsultei eta haien aurkako lege proposamenari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioari eskatzen dio Guatemalako erakundeak premia ditzan Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. hitzarmenari atxikitzen eta hori egiaz aplikatzen, bai eta herri indigenetarako Nazio Batuen Erakundeko informatzaile bereziaren gomendioak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioari eskatzen dio Guatemalako erakundeak premia ditzan Giza Eskubideen Iberoamerikako Gortearen 260-07 kautela-neurriak bermatzera, maia-herriaren erki-degoen bizitza eta osotasun pertsonala bermatze aldera.”

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, hipoteken lege-esparrua aldatzeari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak deklaritzen du hipoteken eta zuzenbide zibileko, merkataritza-zuzenbideko eta zuzenbide prozesaleko lege-esparrua aldatzeari buruzko eztabaida politikoa

abiarazi beharra dagoela, babes sistema bat jar-tzearen ustekabearen gehiegizko zorpetzea gertatzen den kasuetarako; bereziki, ohiko etxebizitzaren gaineko hipotekaren kasuan.”

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzarako Asteari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak deklaratzeko du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak konpromisoa har dezan ondokoez arduratzeko:

1. Hegoaldeko herrialdeetako hezkuntzaren finantzaketa handitzea eta Pobreziaren aurkako

Nafarroako Itunean hartutako konpromisoa betetzea.

2. Gure ingurunera bideraturik diren garapenerako hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen finantzaketa handitzea.

3. Genero-diskriminazioa desagerraraztea.”

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Funesko lurzati berrantolamenduaren eta ureztalur tradizionalaren egungo egoerari buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Funesko lurzati berrantolamenduaren eta ureztalur tradizionalaren egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• Zein da Funesko lurzati berrantolamenduaren eta ureztalur tradizionalaren egungo egoera?

Iruñean, 2011ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Yugoko ermitako eguzki-parkerako proiektuaren egungo egoerari buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Yugoko ermitako eguzki-parkerako proiektuaren egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da Yugoko ermitako eguzki-parkerako proiektuaren egungo egoera?

Iruñean, 2011ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Erriberako ahuntz-azientetako abeltzainek eremu geografiko horretakoak ez diren gainerako abeltzainen prima berak ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Erriberako ahuntz-azientetako abeltzainek eremu geografiko horretakoak ez diren gainerako abeltzainen prima berak ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Erriberako ahuntz-azientetako abeltzainek zergatik ez dituzte primak jasotzen eremu geografiko horretakoak ez diren gainerako abeltzainek bezala?

Iruñean, 2011ko martxoaren 23an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzkoa.

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Román Felones Morrás jaunak idazki bat aurkeztu du. Horren bidez eskatzen du idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian ahozko erantzuna Osoko Bilkuran jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: "Galdera, Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzkoa." Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Nafarroako Antzoki Sarea programaren garapenaren balorazioari buruzko galdera (2011ko martxoaren 11ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Tafallak eta Lizarrak Hizkuntza Eskolaren azpi-egoitzak izateko eginiko eskaera dela-eta hartutako jarrerari buruzkoa.

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amanda Acedo Suberbiola andreak idazki bat aurkeztu du. Horren bidez eskatzen du idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian ahozko erantzuna Osoko Bilkuran jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: "Galdera, Tafallak eta Lizarrak Hizkuntza Eskolaren azpi-egoitzak izateko eginiko eskaera dela-eta hartutako jarrerari buruzkoa." Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Tafallak eta Lizarrak Hizkuntza Eskolaren azpi-egoitzak izateko eginiko eskaera dela-eta hartutako jarrerari buruzko galdera (2011ko martxoaren 24ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Comptos Ganberako 2011. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2010eko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako erabaki hau eman zuen:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dutenez, urtero onetsi behar dira Comptos Ganberaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundearen idazkari nagusiak martxoaren 2an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzailearen, kontu-hartzailearen eta zerbitzu juridikoen aldeko txostena daukana eta Comptos Ganberako Langileen Batzordeari informatu eta entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako 2011. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla 1. eranskinean ageri da.

Bigarrena. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioen 2010eko abenduaren 31ko zerrenda onestea. Zerrenda 2. eranskinean ageri da.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea behar diren ondorioak sor ditzan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan.

Iruñean, 2011ko martxoaren 21ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2011. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen askea	Esklusibitatea	Lanpostua	Mailako osagarria	Berriazko osagarria
Lehendakariaren aholkularia	1		G		X				
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	4	A	F			55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	59,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari-kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	50,20		
Administratzailea	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administraria	5	C	F				46,18	12	
Administraria	1	C	F	X			46,18	12	
Mandataria	2	D	F				36,50	15	
GUZTIRA.....	38								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen askekoa

2. eranskina
2010eko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	6	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	6	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	6	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	5	Auditorea	Aktiboa
Lanpostu hutsa	A		Auditorea	—
Ezquerro Royo, José Luis	A	6	Legelaria	Aktiboa
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	3	Legelaria	Aktiboa
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	4	Kazetari-itzultzailea*	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	6	Auditoretzako teknikari- kontu-hartzailea	Aktiboa
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Equiza Maquirrian, M ^a José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Marticorena Chapa, Xavier Iñigo	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martínkorena Matxain, Miren Edurne	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Moreno Orduña, Karen	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	7	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	6	Administratzailea	Aktiboa
Casado Redin, Cristina	C	5	Administraria	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	5	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	6	Administraria *	Aktiboa
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	5	Administraria	Aktiboa
Pérez de Albéniz Andueza, Francisca	C	5	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C		Administraria	—
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	6	Mandataria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	5	Mandataria	Aktiboa

* Euskara tituluarekin

2010eko abenduaren 20ko Mahaiaren erabakia aldatzea, zeinaren bidez 2011ko lan-egutegia onetsi baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2011ko lan-egutegian ez dator zehaztuta zein izanen den hauteskundeak deitzeko foru dekretua onesten denetik parlamentu berria eratu bitarteko lan-ordutegia. Beraz, ikusita legelari nagusiak horri buruz eginiko txostena, eta bat etorri Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordearen arteko 2002. eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2 idatz-zatiarekin, indarrean den Hitzarmeneko 10. idatz-zatiarekin eta Nafarroako Parlamentuko Lan-

gileen Estatutuko 37. artikularekin, hona ERABAKIA:

1. Mahaiak 2010eko abenduaren 20an hartutako erabakia, zeinaren bidez 2011ko lan-egutegia onetsi baitzen, aldatzea, eta 2. bis idatz-zati berri bat sartzea. Hona testua:

“2. bis. Apirilaren 4tik ekainaren 12ra bitarte, goizeko txandan beteko da lanaldia.”

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.

Gaindituen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an harturiko erabaki baten bidez, eta 2011ko urtarrilaren 10eko 1. NPAOn argitaratu zen. Lekualdatze-lehiaketa amaituta, gaindituen zerrenda, epaimahai kalifika-

tzaileak igorrita, ezaguturik eta deialdiaren 8.1 oinarrian ezarritakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Gainditu dutenen ondoko zerrenda jasotzat ematea:

Irazustabarrena Barriola, Ainhoa..... 29,94 puntu

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda